

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**35/2020 Mozioa, ekainaren 26koa, Arabako Foru Aldundiari eskatzeko esku-hartze arloei eta zentro soziosantarioei berariaz zuzenduriko planak jaso ditzala, COVID-19aren beste agerraldi batzuk egon litezkeela kontuan hartuta**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko ekainaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

35/2020 Mozioa, ekainaren 26koa, Arabako Foru Aldundiari eskatzeko esku-hartze arloei eta zentro soziosantarioei berariaz zuzenduriko planak jaso ditzala, COVID-19aren beste agerraldi batzuk egon litezkeela kontuan hartuta.

Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote COVID-19ari aurre egiteko deseskalatze ondoko Kontingentzia Plan Orokorrean esku-hartze arloei eta zentro soziosantarioei berariaz zuzenduriko planak jaso daitezela, agerraldi berriak egon litezkeela kontuan hartuta, unean uneko egoera epidemiologikoari azkar erantzun ahal izateko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 26a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**